

## Eutanasia

Eutanasia legeztatze-  
ko proposamen bat  
aurkeztu du  
Ezker Batuak  
Eusko Legebiltzarrean

■ *Pertsona orok*  
*«duintasunez hiltzeko*  
*duen eskubidea»*  
*berma dadila*  
*eskatu du*

Erredakzioa / Donostia

«EUTANASIA gure herrian aplikatzen den errealitatea da», dio Ezker Batuak Javier Madrazok Eusko Legebiltzarrean atzo aurkeztu zuen ekimenak; «herriaren gehien-  
goa horren alde dago; beraz, eutanasia legeztatze-  
ko garaia iritsi da», dio Ezker Batuak. Pertsona orok «duintasunez hiltzeko duen eskubidea» bermatu behar dela uste du Ezker Batuak. Horretarako, eskumena duten agintari eta erakunde-  
ek «eutanasia diskriminalizatzeko» urratsak egin behar dituzte.

Ez legezteko proposamenean Holandako Gobernuak here-  
negun harturiko proposame-  
na txalotzen du Ezker Batuak. Halaber, Espainiako Senatuak aurreko legegin-  
tzaldian eginiko inkesta eka-  
rri du gogora; inkesta horren arabera «herritarren % 67 duintasunez hiltzeko eskubi-  
dea legeztatzearen alde» agertu zirela dio Ezker Batuak.

«Eztabaida ezin da  
gehiago atzeratu»

«Atzeraezina den eztabaida bat dugu aurrean; pertsonak bere borondatez hiltzea erabakitzen duenean Estatu laiko eta askotarikoak traba guztiak kendu behar ditu», dio Ezker Batuak atzo aurkeztutako proposamenak.

Era berean, Ezker Batuak gogora ekarri du urtebeteko epean txosten bat aurkez-  
zean eskatu ziola 1997an Eusko Legebiltzarrek Eusko Jaurlaritzari Euskal Autonomi Erkidegoan (EAE) 'bizitzako testamentu' izenez ezagutzen dena ezartzeko aukeraz. Dinamarkan indarrean dagoen testamentu horrek aukera ematen dio hiltzorian dagoen pertsonari ez duela bizitzen jarritu nahi esateko. Ezker Batuak Eusko Jaurlaritzari galdetu dio ea txosten hori egin duen, eta egin badu ea zergatik ez duen orain arte Eusko Legebiltzarrean aurkeztu.

**Koldo Martinez.** MEDIKUA ETA NAFARROAKO BIOETIKA BATZORDEKO KIDEA •

## «Eri gehiegi ari da minez hiltzen, eta hori salagarria da, saihets daitekeelako»

DUELA hiru urte Nafarroan osatu zen Bioetika Batzordeko kidea da Koldo Martinez, eta Nafarroako Ospitaleko Zainketa Bereziatarako Unitatean lan egiten du. Eutanasiaren inguruan debate sakon bat behar dela azpimarratzen du. Holandan hori legeztatze-  
ko onartutako legeak lehen zegoen egintza legeztatu baino ez duela egiten nabarmenduta ere, gure gizartean ere laster kasu batzuetan horrelakorik onartuko dela uste du Martinezek.

■ **Holandan onartutakoaren ondotik, sortuko da zuen artean eztabaidarik gai horren inguruan?**

Hemen gertatzen da eutanasiaren inguruan ez dagoela datu zehatzik, eta inork ez dakiela zer ari den gertatzen, eutanasia legez kanpoko delako. Badakigu Holandan eutanasia nola egiten den, ze baldintzetan, baina hemen ez dakigu gaitxoaren azken uneetan zer gertatzen den. Inork ez du esango: «Nik nire bi gaixori eutanasia egin diet». Eta isilpean geldituko da, egiten baldin bada. Eta oso beharrezkoa dugu jakitea jendea nola hiltzen ari den.

■ **Eta nola hiltzen ari da jendea?**

Inpresioak besterik ez ditut, baina Estatu Batuetan oso ikerketa interesgarria egin zen gai honen inguruan, eta ikusi zuten jendea gaizki ari zela hiltzen, minez, eta haren borondatea ez zela errespetatzen, komunikazio falta handia zegoelako. Bizitzaren azken momentuak asko alda daitezke, hiltzeko kalitatea asko hobetu daiteke.

■ **Zein dira, bada, oztopak? Nondik etortzen dira?**

Arrazoi sakonena da heriotza tabua dela oraindik, ez dugula onartzen, gizarte osoak heriotzari uko egiten diolako. Gaur egungo haurrek ez dute heriotzarik ikusten, jendea ez baita etxean hiltzen, eta hildakoa ez direlako etxean egoten, baizik eta tanatorioetan. Telebistan heriotza asko ikusten da, baina



MIKEL SAIZ

egiazko bizitzan ez dago heriotzarik, ukatu egiten da. Baina, horretaz gain, profesionalok heriotza gure porrota balitz bezala ikusten dugu eta, gainera, gizarteak medikuntzan gehiegizko esperantzak jarri dituela iruditzen zait: hau da, dena senda daitekeela eta dena salba daitekeela.

■ **Hori guztia aldatzeko, zuen lana oso garrantzitsua da.**

Bai, baina ez da bakarrik gurea. Gizarte osoaren lana da, denon arazoa delako.

■ **Lehen aipatu duzu jendea nola hiltzen den zehazteko inpresioak besterik ez zenituela. Zein dira inpresio horiek?**

Gauzak asko aldatu dira medikuntzan, eta orain medikuek gehiago hitz egiten dugu eriekin orain dela urte batzuk baino; baina, hala eta guztiz ere, jende asko hiltzen ari da jakinik hiltzen ari dela baina inork ezer esan gabe. Isiltasunaren konspirazioa da, eta hori guztiz aldatzea oso garrantzitsua da, kaltegarria baita oso. Gelditzen zaiguna osotasunean bizi behar da, bizi behar dugu.

■ **Hori azken unean arlo****Heriotza**

*«Arazo sakonena da heriotza gure artean tabua dela, ukatu egiten dugula heriotza bera, desagertu delako gure gizartetik; egun bakarrik telebistan ikusten dugu»*

■ **bat da, baina badirudi eutanasia minarekin lotua dagoela.**

Legeak, eutanasia aipatzen duenean, beti aipatzen du sufrimendu jasangaitza. Baina egin diren ikerketetan, eutanasia eskatzen dutenek ez dute minarengatik egiten, baina duintasuna galtzearen aurrean dagoen sentimenduarengatik. Hala ere, egia da eri gehienak oraindik minez hiltzen direla, eta hori salagarria da. Salagarria, mina gehienetan ken daitekeelako, batez ere.

■ **Holandan onartutako legean 16 urtetik aurrerakoek ere eska dezake-  
te eutanasia.**

Guri 16 urteko haurra umea iruditzen zaigu oraindik, eta adin horrekin nekeza da pertsona horrek benetan hil nahi ote duen jakitea. Bizitza oso gauza zabala da, aintza, eta orduan dena dute aurrean. Niri gehiegikeria iruditzen zait adin hori hor jartzea.

■ **Holandan legearen aurka azaldu direnak «munstro juridikoaz» mintzatu dira. Horrelakorik hemen proposatzea ezinezkoa da?**

Nik uste dut eztabaida bizirik dagoela gure gizartean. Inkestak-eta egiten direnean, ematen du jende gehiena eutanasiaren alde dagoela, baina inkestak oso kontu handiz hartu behar dira. Nik uste dut debate lasai, sakon eta zuhurtzia handikoa egin behar dela gizartean, denon artean.

■ **Baina badira baldintzak horrelako planteamendua gaur egiteko?**

Nik uste dut baietz, egin behar dela, eta neure iritzia da, baina lehenago edo geroago onartu egingo da eutanasia hemen, kasu jakin batzuetan betiere.

*Alberto Barandiaran*

IRUÑEA